



**IÑAKI BARCENA**  
EKOLOGISTAK MARTXAN  
ETA EKOPOL-EKO KIDEA

## Busturialdea, nora zoaz?

Joan den urriaren 28an manifestaldi jendetsua egin zen Gernikan. Aspaldiko partez, 1987an bonbardaketaren 50. urtemugaren harira egindakotik, agian, handiena. Berton, instituzio politiko zentral, autonomiko eta probintzietatik babestutako Guggenheim museo proiektu berriaren inposizioa salatu zen. Agerian geratu denez, Busturialdeko herritarren parte handi batek ez du begi onez ikusten “kanpotik” ekarri nahi dieten “garapen” turistiko eta ekonomiko-kulturalerako eredu hori.

Lau hilabete aurretik, maiatzaren 30ean, Astra espazio autogestionatuan 50 lagunuen batzar batean aurkeztu zuten “Busturialdeko Iraunkortasunerako Indizea” sortzeko prozesu parte-hartzaile baten proiektua, EHUKo Ekopol eta Parte Hartuz ikerketa taldeko, OMA-Leko (Latinoamerikako Multinazionalen Behatokia) eta Euskal Gune Ekosozialistaren partaideek.

Nire aburuz, bai helburuetan bai prozeduretan ere, bi adibide horiek krisi ekosozialaren aurreko irtenbide eta soluziobideak topatzeko bide kontraesankor eta antagonikoak dira, argi eta garbi.

Batak, nazioarteko frankizia ezagun baten leloarekin, eta Urdaibaik dituen dohain natural eta paisajistikoen erakargarritasuna profitatuz, hazkunde ekonomikorako proiektu bat ezarri nahi du, goitik behera eta inpaktu so-

zio-ekologiko negatiboak aipatu edo neurtu gabe.

Besteek, aldiz, prozesu parte-hartzaile bat diseinatu dute, non ikerlari eta herritarren arteko elkar kolaborazioan bost ardatzen azterketa eta neurketa egin nahi duten. Hasteko, ardatz metabolikoa, hots, energia eta materialen sarrerak eta irteerak, Busturialdean nolakoak diren eta nola ari diren eboluzionatzen ikusi eta ikasi. Edo bertoko ekosistemek ematen duten ingurumen kalitaterako datuak bildu eta aztertu, eta modu berean jarduera ekonomikoekin, gizarte kohesioarekin eta hiritarren parte-hartzearekin edo bizi-zaren bestelako dimentsioarekin.

Batzuentzat, soilik adituek egingo dute diseinua, ondo ordainduta, baina instituzio eta partidu gobernarietako markatutako enkarguaren jarraipena eginez, hazkunde ekonomikoa helburu ia bakarra izanik, alegia. Besteon ikuspegitik, proiektu pilotu bat garatuko da Busturialdean, baina erreferentzia izan daitekeena Euskal Herriko beste bailara eta eskualdeetan. Busturialdeko datuak (bost ardatzetakoak) bildu eta bertoko herritarrekin, eragile sozialekin, elkarrekin eta instituzioekin eztabaida prozesu parte-hartzaile bat martxan jarriko da, hurrengo bi urteetan. Diru bila ari dira lanak antolatzeko. Besteak, denon diruarekin negozio berriak ari dira biltzen. ●

## Titi feria



**ITXARO BORDA**  
IDAZLEA

O rain arte pantaila txikiko izarlokek zuten ariketa horretara laprast egiten. Bularrak erakustea zeregin heroikoa dela frogatu digu hainbat emakume mediatikok, hondar hamarkada hauetan. Batzuek horrexegatik aski eta nahiko ordaindu ere omen dute. Ekintza artistikoa ere izan da frankotan, gure gizarte pornografikoen ahalke edo lotsa faltsua salatzeke. Ez dut izenik emango, izenak ematea itsusia delako.

Euskaldunok ez gabiltza gibelkoi. Mendetan, bereziki emazteen gorputzak, ahalkez tapaturik atxiki ditugu, baina

gaur egun halako askatasun haize batek bulkatzen gaitu gure intimitateaz hitz eta bertso egitera, hilekoak, aluen hezetasun zirrargarriak edo larrua jo ondoko isuri misteriotsuak aipatzera, hots, ahoan bilo kizkurrik gabe. Eta Bizkaiko Bertsolari Txapelketako agurren orduan, bata eta bestea ausartu ziren, gutxiago ezin egin, beren titi-bularren bat erakustera, jendetza zoratuaren txaloen erdian...

Nire arima jansenista ari zait belarri zulora galdezka: bertsozaleak neurri horretarainoko biluzteak eskatzen al ditu? Noraino, neskak? ●